

## Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**3734**

AGINDUA, 2007ko ekainaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kudeatutako datu pertsonalak dituzten fitxategi jakin batzuk arautzen dituena.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikuluak ezartzen du herri administrazioen jabetzako datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeko, xedapen orokor bat argitaratu beharko dela Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean, eta bertan artikulu horren edukia azaldu beharko dela xedapen horren oinarritzko edukian.

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legeak -Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategie eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak- 18. artikuluan Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du, eta ezartzen du Erregistro horretan inskribatuko direla lege horren aplikazio-eremuan sartzen diren fitxategiak.

Urriaren 18ko 308/2005 Dekretuak Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen du, eta 2. artikuluan ezartzen duenez, datu pertsonalen fitxategirik sortu, aldatu edo ezabatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi beharko diote, DBEBren zuzendaria- ren 2005eko uztailaren 21eko ebazpenaren bidez onartutako eredu normalizatuari jarraiki (EHAA, 125. zk., 2005eko abuztuaren 31koa).

Hezkuntza-munduan eta prestakuntzan datu pertsonal asko eta asko erabiltzen dira, eremu horiek oso importanteak direlako eta gizartearen eragin handia dute lako. Hori dela eta, datuon erabilera kontu handiz arautu behar da, euren barnean hartzen duten talde osoaren eskubideak behar bezala babesteko.

Bestetik, Administratziotik zuzenean egiten ez den jarduera izanik oso izaera desentralizatzailea du, eta hezkuntza- eta prestakuntza-antolaketan hainbat eta hainbat gizarte-eragilek parte hartza eskatzen du. Horrenbestez, horien guztien gaineko datu pertsonalak

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**3734**

ORDEN de 8 de junio de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regulan determinados ficheros de datos de carácter personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

El artículo 20 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (LOPD) establece que la creación, modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal de los que sean titulares las Administraciones Públicas sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el Boletín Oficial del Estado o Diario oficial correspondiente, estableciendo dicho artículo el contenido básico de dicha disposición.

El artículo 18 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos (AVPD) crea el Registro de Protección de Datos y establece que serán objeto de inscripción en el mismo los ficheros comprendidos dentro del ámbito de aplicación de dicha Ley.

El artículo 2 del Decreto 308/2005, de 18 de octubre, por el que se desarrolla la Ley del Parlamento Vasco 2/2004, establece que los Entes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco notificarán a la Agencia Vasca de Protección de Datos (AVPD) toda creación, modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal, para su inscripción en el Registro de Protección de Datos, mediante el traslado de la disposición o acuerdo a través del modelo normalizado aprobado por Resolución de 21 de julio de 2005, del Director de la AVPD (BOPV 165, de 31 de agosto de 2005).

El mundo educativo y la formación constituyen tanto por su importancia como por su dimensión social, un campo abonado para la utilización de datos de carácter personal cuyo uso debe necesariamente de regularse con la máxima cautela a fin de que queden perfectamente preservados los derechos de todo el colectivo integrante.

Por otro lado, su marcado carácter descentralizador, al descentralizador, al tratarse de una actividad no prestada directamente desde la Administración, implica la intervención de múltiples y diversos agentes sociales que van a participar en la organización educativa y for-

erabili behar dira, eta datuon erabilpenak behar bezala mugatuta eta araututa egon behar du.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1996ko irailaren 24ko Aginduak (1996ko urriaren 9ko EHAA) arautzen ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak izan eta datu pertsonalak jasotzen dituzten fitxategi automatizatuak, sasoi hartan indarrean zegoen araudiari jarraiki.

Horren ostean, beste prestakuntza-programa batzuk jarri dira abian, eta horiek ere eskatu dute datu pertsonaletarako fitxategiak sortzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagozkion kudeaketa-funzioak betetzeko.

Beraz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa -Datu Pertsonalak Babesteko Legea (DPBL)- eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legea -Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategieei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko Legea (DBEBSL)- betetzeko, honako hau

#### EBATZI DUT:

**1. artikulua.**— Ebazpen honen bidez arautzen dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategi jakin batzuk, hain zuzen ere eranskinean zerrendatzetan direnak.

**2. artikulua.**— Datu pertsonalen fitxategiak sortzen dira, eta horien xehetasunak eranskinean jasotzen dira.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari emango zaio horren berri, horretarako finkatutako prozedura normalizatuaren bidez. Helburua da Datuak Babesteko Euskal Bulegoak datuok Datuak Babesteko Erregistroan jasotzea, gero Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Erregistroan txertatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

(2007ko ekainaren 8ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduaren bitartez eskuordetutako izenpea erabiliz)

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,  
PABLO JESÚS LARRAURI ALTONAGA.

mativa. Ello conlleva necesariamente la utilización de datos de carácter personal sobre todos ellos, cuyo uso debe de quedar debidamente delimitado y regulado.

La Orden de 24 de septiembre de 1996 (BOPV de 9 de octubre de 1996) del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, reguló los ficheros automatizados con datos de carácter personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, con arreglo a la normativa vigente en aquel momento.

Posteriormente, se han puesto en marcha nuevos programas formativos que también han requerido de la creación de ficheros de carácter personal para el ejercicio de las funciones de gestión que les son propias al Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Por tanto, a fin de dar cumplimiento a las anteriormente citadas Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (LOPD) y Ley del Parlamento Vasco 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos (LAVPD),

#### RESUELVO:

**Artículo 1.**— Mediante la presente Disposición se regulan determinados Ficheros de Datos de Carácter Personal gestionados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación que se relacionan en el anexo.

**Artículo 2.**— Se crean los ficheros de datos de carácter personal cuyos detalles se recogen en el anexo.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Disposición se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y se notificará a la Agencia Vasca de Protección de Datos, mediante el procedimiento normalizado establecido al efecto, con el fin de su inscripción en el Registro de Protección de Datos de la AVPD y su posterior integración en el Registro de la Agencia Española de Protección de Datos.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2007.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,  
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

(Por delegación de firma en virtud de Orden de 8 de junio de 2007 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación)

El Viceconsejero de Administración y Servicios,  
PABLO JESÚS LARRAURI ALTONAGA.

## ERANSKINA

## ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ZUZENDARITZA

1. fitxategia- Hizkuntzak www.hiru.com web orriaren bidez ikastea.

## a) Helburua:

Hizkuntzak ikasteko, www.hiru.com-en izena emanda duten lagunen datu egokiak izatea.

b) Lortu nahi ditugun edo derrigor hornitu behar ditugun datu pertsonalak, pertsonenak zein taldeenak:

Hizkuntzak on-line edo CD bidez ikasteko, Etengabeko Ikaskuntzako atarian (www.hiru.com) izena ematen duten pertsonenak.

## c) Datu pertsonalak jasotzeko prozedura:

Programan izena emateko interesadunek erabili behar duten inprimakiaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta datu pertsonal moten deskripzioa, honako hauek ere sartuta:

Identifikazio-datuak.

e) Datu pertsonalak lagatzea eta, behar izanez gero, aurreikusitako hirugarren estatuei datuak transferitzea:

Ez da halakorik aurreikusten.

f) Administrazioen organoak (fitxategiaren erantzuleak):

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Eten-gabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzu edo ataletara jo datuak sartu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideaz balitzeko:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Eten-gabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.

h) Eska daitezkeen segurtasun-neurriak, maila adieraziz (oinarrizko, ertaina edo handia).

Oinarrizko maila.

2. fitxategia.- Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak eskaintza partzialaren modalitatearen bidez eginen dituzten ikasleen fitxategia.

## a) Helburua:

Eskaintza partzialaren modalitatearen bidez Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak egiten dituzten lagunen datu egokiak izatea.

b) Lortu nahi ditugun edo derrigor hornitu behar ditugun datu pertsonalak, pertsonenak zein taldeenak:

Eskaintza partzialaren modalitatearen bidez ikastetxe publiko zein pribatu baimenduetan ikasteko izena ematen duten lagunak.

## ANEXO

## DIRECCIÓN DE APRENDIZAJE PERMANENTE

Fichero n.º 1.- Aprendizaje de idiomas a través de www.hiru.com.

## a) Finalidad:

Disponer de los datos necesarios de las personas que están inscritas en www.hiru.com para el aprendizaje de idiomas.

b) Personas o colectivos sobre los que se pretende obtener datos de carácter personal o que resulten obligados a suministrarlo:

Personas que se inscriben en el portal de Aprendizaje Permanente www.hiru.com para aprender idiomas on-line o a través de CDs.

c) Procedimiento de recogida de los datos de carácter personal:

A través del formulario que las personas interesadas deben completar para su inscripción en el programa.

d) Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos:

– De carácter identificativo.

e) Cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, transferencias de datos que se prevean a países terceros:

No se prevén.

f) Órganos de las Administraciones responsables del fichero:

Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

g) Servicios o unidades ante los que pudiesen ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición:

Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

h) Medidas de seguridad con indicación del nivel básico, medio o alto exigible:

Nivel básico.

Fichero n.º 2.- Fichero del alumnado que cursa Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de Oferta Parcial.

## a) Finalidad:

Disponer de los datos necesarios de las personas que están cursando Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de Oferta Parcial.

b) Personas o colectivos sobre los que se pretende obtener datos de carácter personal o que resulten obligados a suministrarlo:

Personas que se matriculan en la modalidad de Oferta Parcial en centros públicos o privados autorizados a su impartición.

c) Datu pertsonalak jasotzeko prozedura:	c) Procedimiento de recogida de los datos de carácter personal:
Matrikula-inprimakiaren bidez.	A través del formulario de matrícula.
d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta datu pertsonal moten deskripzioa, honako hauek ere sartuta:	d) Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos:
1) Identifikazio-datuak.	1) De carácter identificativo.
2) Ikasketak eta lanbidea.	2) Académicos y profesionales.
e) Datu pertsonalak lagatzea eta, behar izanez gero, aurreikusitako hirugarren estatuei datuak transferitzea:	e) Cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, transferencias de datos que se prevean a países terceros:
Ez da halakorik aurreikusten.	No se prevén.
f) Administrazioen organoak (fitxategiaren erantzuleak):	f) Órganos de las Administraciones responsables del fichero:
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Eten-gabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.	Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.
g) Zein zerbitzu edo ataletara jo datuak sartu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideaz baliatzeko:	g) Servicios o unidades ante los que pudiesen ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Eten-gabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.	Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.
h) Eska daitezkeen segurtasun-neurriak, maila adieraziz (oinarrizko, ertaina edo handia).	h) Medidas de seguridad con indicación del nivel básico, medio o alto exigible:
Oinarrizko maila.	Nivel básico.
3. fitxategia.— Bizitza osoan zehar ikasteko bitarte-karitza-zerbitzuetara jotzen duten lagunei buruzko fitxategia.	Fichero n.º 3.— Fichero de las personas que demandan servicios de mediación de aprendizaje a lo largo de la vida:
a) Helburua:	a) Finalidad:
Eskualdean eta inguruko eremuetan bizitza osoan zehar ikasteko ekintzei buruzko informazioa eta aholkuak eskatzen dituzten lagunei buruz eskura izan behar diren datuak izatea.	Disponer de los datos necesarios de las personas que demandan información y asesoramiento sobre actuaciones de aprendizaje a lo largo de la vida en la comarca o zona más accesible.
b) Lortu nahi ditugun edo derrigor hornitu behar ditugun datu pertsonalak, pertsonenak zein taldeenak:	b) Personas o colectivos sobre los que se pretende obtener datos de carácter personal o que resulten obligados a suministrarlos:
Bizitza osoan zehar ikasteko abian jarri diren ekin-tzei buruzko informazio eta aholku eske bitartekaritza-zerbitzuetara jotzen duten lagunak.	Personas que acceden a los servicios de mediación de aprendizaje, demandando información y asesoramiento sobre las diferentes actuaciones en marcha en relación con el aprendizaje a lo largo de la vida.
c) Datu pertsonalak jasotzeko prozedura:	c) Procedimiento de recogida de los datos de carácter personal:
Datu pertsonalak jasotzeko inprimakiaren bidez.	A través de formulario de recogida de datos personales.
d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta datu pertsonal moten deskripzioa, honako hauek ere sartuta:	d) Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos:
1) Identifikazio-datuak.	1) De carácter identificativo.
2) Ikasketak eta lanbidea.	2) Académicos y profesionales.
e) Datu pertsonalak lagatzea eta, behar izanez gero, aurreikusitako hirugarren estatuei datuak transferitzea:	e) Cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, transferencias de datos que se prevean a países terceros:
Ez da halakorik aurreikusten.	No se prevén.

f) Administrazioen organoak (fitxategiaren erantzuleak):

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Eten-gabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzu edo ataletara jo datuak sartu, zu-zendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideaz baliatzeko:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Eten-gabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.

h) Eska daitezkeen segurtasun-neurriak, maila adie-raziz (oinarrizko, ertaina edo handia).

Oinarrizko maila.

f) Órganos de las Administraciones responsables del fichero:

Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

g) Servicios o unidades ante los que pudiesen ejer-citarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición.

Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

h) Medidas de seguridad con indicación del nivel bá-sico, medio o alto exigible.

Nivel básico.

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**3735**

EBAZPENA, 2007ko maiatzaren 18koa, Euskal Herriko Unibertsitatearena, unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetako plazak betetzeko lehiaketa-rako deia egiteko dena.

Errektoregoak, emanda dauzkan ahalmenez baliatuta, erabaki honen I. eranskinean aipatzen diren uniber-tsitateko irakasleen kidegoetako plaza hutsak betetze-ko lehiaketarako deia egitea erabaki du, Unibertsitateen Koordinazio Kontseiluko idazkaritzari plaza horien be-rrri eman ondoren, gaitasun probetarako. Hori guztia egin da ondoren aipatzen den legerian xedatutakoa betetzeko: Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan; uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuan, unibertsitateko irakasleen kidegoe-tako funtzionarioen plazak hartu ahal izateko gaitasun proben sistemari buruzkoa eta plaza horietako sartzeko lehiaketei buruzkoa (aipatutako dekretuko atal bat-zuk aldatu egin dira 2005eko apirilaren 11ko BOEn argitaratutako apirilaren 1eko 338/2005 Dekretuaren bidez); abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez onartu ziren Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuetan (2004-01-12ko EHAA); eta EHUKO behin-behineko Gobernu Kontseiluaren 2004ko martxoaren 17ko erabakian, unibertsitateko irakasle funtzionarioen kide-goetara sartzeko lehiaketetarako prozedura eta oinarriak onartzen dituena, bai eta merituen baremo orokorra ere. Honako hauek dira deialdiko oinarriak.

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

#### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

**3735**

RESOLUCIÓN de 18 de mayo de 2007, de la Univer-sidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se convoca concurso de acceso a pla-zas de Cuerpos de Funcionarios Docentes Universi-tarios.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, en el Real Decreto 774/2002, de 26 de julio, por el que se regula el Sistema de Habilitación Nacional para el ac-ceso a cuerpos de funcionarios docentes universitarios y el régimen de los concursos de acceso respectivos, mo-dificado parcialmente por el Real Decreto 338/2005, de 1 de abril (BOE de 11 de abril de 2005) y a tenor de lo establecido en los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, aprobados por Decreto 322/2003, de 23 de diciembre (BOPV 12-01-2004) y en el Acuerdo del Consejo de Gobierno Pro-visional de esta Universidad de 17 de marzo de 2004 por el que se aprueba el procedimiento y las bases re-guladoras para los concursos de acceso a Cuerpos de fun-cionarios docentes universitarios y el baremo general de méritos, este Rectorado, en ejercicio de las competen-cias que tiene atribuidas ha resuelto convocar el corres-pondiente concurso de acceso a las plazas vacantes de los Cuerpos Docentes Universitarios que se detallan en el anexo I de esta Resolución, comunicadas a la Se-crataría del Consejo de Coordinación Universitaria, a efec-tos de habilitación, con sujeción a las siguientes